ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATU EDO SUPER ERRAZTU BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIO POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPER SIMPLIFICADO**
ZARAUZKO ERAZTUN BERDE URDINAREN MANTENU LANAK **2023IK210005**		**TRABAJOS DE MANTENIMIENTO DEL ANILLO VERDE AZUL DE ZARAUTZ** **2023IK210005**
1. KONTRATUAREN XEDEA Kontratuaren xedea da Zarauzko Eraztun Berde Urdinaren mantenu lanak egiteko zerbitzua kontratatzea. Horretarako, agiri honek deskribatu eta definituko ditu kontratua arautuko duten baldintza teknikoak, bereziki, egin beharreko lanen maiztasunak, kokapenak eta ezaugarriak. Mantentze lanak hauek dira besteak beste: seinaleztapen guztia mantendu, garbitu eta, behar diren kasuetan, berritu; zehaztutako eremuetan hondakinak jaso; belarrak moztu; landare inbaditzaileak kendu. **2. MAIZTASUNAK** **Mantenu lanak:** .Urtean lau aldiz (apirilean, ekainean, abuztuan eta urrian) belarra moztu, hondakinak jaso, seinaleak garbitu, landare inbaditzaileak kendu… .Udalak ikuskapen bakoitzaren ondoren, gune zehatz batean identifikatutako intzidentziak (seinaleak garbitu, hondakinak bildu, seinale berriren bat jarri, zuhaiska edo zuhaitzen bat moztu) jakinaraziko dizkio adjudikaziodunari eta hark astebeteko epean egin beharko ditu. Eraztun Berde Urdinaren (aurrerantzean EBU) ikuskapen horiek maiztasun honekin egingo dira: hilabetean behin (urtarrila, otsaila, martxoa, urria, azaroa eta abenduan), hilabetean bitan (apirila, maiatza, iraila) eta hilabetean hirutan (ekaina, uztaila eta abuztuan). .Urtean behin, Zingira basoan eta Gesoerreka basoan azken urteetan egin diren landaketen eremua desbrozatzea egingo du.		**1.OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato es el servicio de mantenimiento del Anillo Verde Azul de Zarautz. A tal efecto, el presente documento describirá y definirá las condiciones técnicas que regirán el contrato y, en particular, las frecuencias, ubicaciones y características de los trabajos a realizar. Las operaciones de mantenimiento incluyen, entre otras, el mantenimiento, limpieza y reposición, en su caso, de toda la señalización; la recogida de residuos en las zonas definidas; la siega; la eliminación de plantas invasoras. **2.FRECUENCIAS** **Mantenimiento:** • Siega, recogida de residuos, limpieza de señales, eliminación de plantas invasoras cuatro veces al año (abril, junio, agosto y octubre). • Tras cada inspección, el Ayuntamiento comunicará a la empresa adjudicataria las incidencias identificadas en una zona concreta (limpieza de señales, recogida de residuos, colocación de nueva señalización, tala de arbolado o arbolado), que deberá realizar en el plazo de una semana. Estas inspecciones del Anillo Verde Azul (en adelante AVA) se realizarán con periodicidad mensual (enero, febrero, marzo, octubre, noviembre y diciembre), bimensual (abril, mayo, septiembre) y trimestral (junio, julio y agosto). • Desbroce anual de las plantaciones realizadas en los últimos años en el bosque de Zingira y Gesoerreka.

.Urtean gehienez lau aldiz, udalak adierazitako unean, berehalako interbentzio puntualak egin (zuhaitz bat erretiratzeko, seinaren bat jasotzeko, baranda bat konpontzeko…)		• Realizar intervenciones puntuales inmediatas hasta un máximo de cuatro veces al año, en el momento indicado por el Ayuntamiento (para retirar un árbol, recoger una seina, reparar una barandilla).
Berritze eta egokitze lanak:		**Obras de reforma y acondicionamiento**:
.Udalak urtero plangintza bat egingo du EBU ibilbidea hobetzen joateko. Lan hauek prezio unitarioen bidez kudeatuko dira. Horrelako lanak izatea aurreikusten dugu: harri txintxarra edo pinu azala zabaldu, trabesa batzuk jarri, egurrezko helduleku berriak egin eta abar.		• El Ayuntamiento elaborará anualmente una planificación para ir mejorando el itinerario AVA. Estos trabajos se gestionarán mediante precios unitarios. Se prevé este tipo de trabajos: ensanchamiento de la piedra pedrisca o de la corteza de pino, colocación de traviesas, nuevos pomos de madera, etc.
4. EGINKIZUNAK		**4.FUNCIONES**
4. 1) Seinaleak: .EBU ibilbideko seinaleztapena/panel guztiak mantendu, garbitu, konpondu eta, behar diren kasuetan, ordezkoak jarriko dituzte.		**4.1)Señales**: • Se mantendrán, limpiarán, repararán y, en su caso, sustituirán todos los paneles/señalizaciones del itinerario AVA.
.EBU ibilbideko seinaleztapenaren mantenuan marra berde urdinen margoketa lanak burutuko dira. Beharrezkoa ikusten denean, marra berde-urdin berriak margotuko dira eta beste zenbat kasutan errepasatu beharko dira. Ezabatu behar direnean ere, adjudikazioduna arduratuko da behar bezala kentzeaz.		• En el mantenimiento de la señalización del itinerario EBU se realizarán trabajos de pintura de marcas verdes azules. Cuando se considere necesario, se pintarán las nuevas franjas verde-azul y en otros casos habrá que repasarlas. En los casos en los que sea necesario eliminarlos, la empresa adjudicataria también se encargará de eliminarlos correctamente.
.Konpontzeko erabiliko diren materialek jatorrizkoen antzeko ezaugarriak izango dituzte. Seinale berriak behar badira, horien erosketaz udala arduratuko da		• Los materiales utilizados para la reparación tendrán características similares a las originales. El Ayuntamiento se hará cargo de la adquisición de las nuevas señalizaciones que se precisen.
2) Hondakinak:		**2)Residuos**:
.Jasotako hondakinak izango dira gune naturalean arrotzak diren hondakinak: plastikoak (bidoiak, botilak, film plastikoa, jostailuak), egurrak (paletak, oholak, hesolak..) beira (botilak edo beste edonolakoak), erosketetako karroak, trapuak eta oihalak, burdinak, haltzariak, obra-hondakinak eta antzekoak.		• Los residuos recepcionados serán residuos extraños al espacio natural: plásticos (bidones, botellas, film plástico, juguetes), maderas (paletas, tableros, estacas...) vidrio (botellas o de cualquier otro tipo), carros de compras, trapos y telas, hierro, alisos, escombros y similares.
.Azaltzen diren hondakinak jasotzeko beharrezko baliabideak eduki beharko dituzte.		• Deberán disponer de los medios necesarios para la recogida de los residuos descritos. Se excluyen de esta recogida aquellas recogidas que requerirían de maquinaria extraordinaria

Bilketa honetatik kanpo geratzen dira, ezohiko makinaria eskatuko luketen bilketak, hala nola eskabadora, kamioi-grua eta abar		como escabadora, grua camión, etc.
.Nahiz eta hainbat gunetan kale garbiketa zerbitzua egon (Igerain inguruan, Hilerri inguruan, Abendaño poligonoan..) ibilbidea egiteko txandan aurkitzen diren zaborrak ere jaso beharko dituzte. Ateratako hondakinak sailkatu eta behar bezala kudeatu beharko ditu adjudikaziodunak		• Aunque haya servicio de limpieza viaria en varias zonas (zona de Igerain, zona de Cementerio, polígono Abendaño...) también deberán recoger las basuras que se encuentren en el turno de recorrido. La empresa adjudicataria deberá clasificar y gestionar adecuadamente los residuos extraídos
3) Belarra moztea.		**3)Siega.**
.Ibilbide ertzeko belarrak moztu beharko dituzte urtean lau txandatan: apirilean, ekainean, abuztuan eta urrian. Oharra: Vista Alegreko parkean, Udaleko lorezaintza zerbitzua arduratuko da belar mozketaz. .Ertz bakoitzean 1,5 m-ko zabalera hartuko dute gutxi gorabehera. .Mozketa egin ondoren, belarrak ertzetan pilatuko dira, bidea garbi uzteko. .Ibilbide bazterreko mozketaz gain, Zingira basoan eta Gesoerreka basoan, landaketak egin diren eremuetan desbrozea egin beharko da. Horretarako, aurretik landare berriak identifikatu eta markatu beharko dituzte (kainabera edo pintura bitartez) eta ondoren egingo dituzte desbrozeak.		• Cortar las hierbas de borde en cuatro turnos al año: abril, junio, agosto y octubre. Nota: en el parque de Vista Alegre, el servicio municipal de jardinería se encargará del corte de hierba. • Ocuparán una anchura aproximada de 1,5 m en cada borde. • Una vez realizado el corte, las hierbas se apilarán en los bordes para dejar la vía limpia. • Además de la corta marginal del itinerario, en las zonas donde se hayan realizado plantaciones en el bosque de Zingira y en el monte Gesoerreka, se deberá realizar un desbroce. Para ello, previamente deberán identificar y marcar las nuevas plantas (mediante caña o pintura) y posteriormente realizar los desbroces.
4) Zuhaitz eta zuhaiska mozketak:		**4) Talas de árboles y arbustos**:
.Zuhaitz eta zuhaiskaren bat eroriko balitz edo kendu beharra balego segurtasuna dela eta, adjudikaziodunak moztu eta erretiratu beharko du. Zuhaitza erdi erorita baldin badago eta bere onera ekartzeko aukera baldin badago, beharrezko loturak jarriko dituzte. Lan honetatik kanpo geratzen da bitarteko bereziak behar dituzten zuhaitz mozketak, bereziki trepa-sistemak, gruak edo dena dela		• En caso de caída o necesidad de retirada de árboles y arbustos por motivos de seguridad, la empresa adjudicataria deberá proceder a su tala y retirada. Si el árbol está semicaído y se puede reponer, se colocarán las uniones necesarias. Se excluyen las talas de árboles que requieran medios especiales, especialmente sistemas de trepas, gruas o cualquier otra
5) Landare exotiko inbaditzaileak erretiratzea:		**5) Retirada de plantas exóticas invasoras**:
Lanak hauek izango dira: .Biotopoan kainaberak kentzea (*Arundo donax*): desbrozatu egingo dira eta bertan baztertuta utziko dira hondarrak. Eraztun Berde Urdinaren ibilbidean dauden krokosmiak kentzea (*Crocosmia*		Los trabajos consistirán en: - Eliminación de cañas en el Biotopo (Arundo donax): se desbrozarán y se retirarán los restos. Retirada de crocosmías en la ruta del Anillo Verde Azul (Crocosmia

- *crocosmiflora*): landareari tira eginda kenduko dira, beti ere lur azpiko tipula kenduta. Ateratako materiala erretiratu egin beharko dute. - EBUko bide bazterreko panpak (*Cortaderia selloana*): landare osoak atera beharko dira eta ateratakoa erretiratu. Landare hauen sakabanatzea saihesteko, erretiratutako landareak garbigunera eramango dira. - Unean unean EBUko bide bazterretan identifikatutako landare inbaditzaileak kendu egin beharko dira.		- crocosmiflora): se retirarán mediante tiras a la planta, siempre que se elimine la cebolla subterránea. Retirarán el material extraído. - Panpas marginales de la U.E.E. (Cortaderia selloana): se deberán extraer las plantas completas y retirar las extraídas. Para evitar la dispersión de estas plantas, las plantas retiradas se llevarán al punto limpio. - Se deberá proceder a la eliminación de las plantas invasoras identificadas en cada momento en las márgenes de caminos de la U.T.E.
6) **Egokitze lanak:** EBU ibilbidea egiten duten oinezkoentzako dauden arriskuak saihesteko, Udalak beharrezkoak ikusten dituen egokitzapen lanak burutu beharko ditu adjudikaziodunak. Adibidez: bidean legarra edo pinu azala botatzea, oinezkoen irristatzeak ekiditeko; egurrezko hesolak edota eskailerak jartzea, maldan behera jaisteko; eskaileretan iltzeak sartzea, irristatzeak ekiditeko eta abar. Honako lanak aurreikusten dira: .Hartxintxarra botatzea putzuak eta gune lokaztuak ekiditeko. .Gune lokaztuak saihesteko egurrezko trabesak jartzea (euri ura bideratzeko). .Egurrezko eskailerak jartzea. .Egurrezko heldulekuak jartzea. .Egun euritsuetan egurrezko eskailerak irristakorrak izan ez daitezen tratamendua egitea. .Gune batean erortzeko arriskua baldin badago, egurrezko hesolak jartzea.		**6) Obras de acondicionamiento**: La empresa adjudicataria deberá realizar las obras de acondicionamiento que el Ayuntamiento considere necesarias para evitar los riesgos existentes para los peatones que realizan el itinerario AVA. Por ejemplo: tirar en la vía grava o cáscara de pino para evitar deslizamientos peatonales; colocar estacas o escaleras de madera para bajar en pendiente; clavar clavos en escaleras para evitar deslizamientos, etc. Se prevén los siguientes trabajos: • Aplicar gravilla para evitar charcos y zonas fangosas. • Colocación de traviesas de madera para evitar zonas embarradas (canalizar el agua de lluvia). • Colocación de escaleras de madera. • Colocación de asas de madera. • Tratamiento para evitar la resbaladicidad de las escaleras de madera en días lluviosos. • Colocar estacas de madera si existe riesgo de caída en una zona.
7) Zuhaitz eguna: Urtean behin ikastetxeekin ospatzen den Zuhaitz egunaren inguruko lanak egitea. -Eguna bera baino lehen, Udalak adierazitako eremuan 200 zulo inguru egin beharko dituzte -Foru Aldundiko mintegietatik prestatutako landarea eta aitzurrak landaketa egingo den gunera ekartzea. -Ikasleei laguntzea landaketak egiten.		**7)Día del árbol**: Realizar trabajos en torno al Zuhaitz Eguna que se celebra una vez al año con los centros escolares. - Antes de la misma fecha, deberán ejecutar en la zona indicada por el Ayuntamiento unos 200 huecos - Traer a la zona de plantación la planta y las azadas preparadas desde los viveros de la Diputación Foral. - Ayudar al alumnado en las plantaciones. - Revisar las plantaciones al final del ejercicio,

-Ekitaldia amaitzen denean, landaketak errebisatu, hondakinak bildu eta eremua txukun utzi beharko dute. -Aitzurrak Foru Aldundiari entregatu beharko zaizkio.		recoger los residuos y dejar la zona ordenada. - Las azadas deberán ser entregadas a la Diputación Foral.
5. EREMUA Honako mapa honetan agertzen diren eremuak dira EBUren ibilbidearen parte eta mantenu zerbitzua gune horietan gauzatuko da: **https://labur.eus/EBUmapa**		**5.AMBITO** 5 El servicio de mantenimiento y parte del itinerario del AVA se realizará en las zonas que figuran en el siguiente mapa: https://labur.eus/EBUmapa
6. LAN HARREMANAK Udalarekin harreman zuzena mantenduko du adjudikaziodunak, korreo elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre azaltzeko. Horretarako, harremanetarako pertsona eta kontaktu bideak zehaztu beharko ditu.		**6. RELACIONES LABORALES** La empresa adjudicataria mantendrá contacto directo con el Ayuntamiento para exponerlo por correo electrónico, teléfono o presencialmente. Para ello, deberá determinar la persona de contacto y las vías de contacto.